

2026M8 EMAKUMEON BOTEREA

Martxoaren 8an mundu osoko emakumeok elkarrekin ahotsa altxatzen dugu lortutako garaipenak ospatzeko eta energiaz aldarrikatzeko **emakumeon eskubideek ez dutela mugarik eta ez direla negoziata gai.**

CCOOn feminismoa internazionalista da eta horregatik aldarrikatzen ditugu mundu osoko emakumeon eskubideak eta boterea urteko egun bakoitzean. Geu garelako bizitza sostengatzen dugunak, zaintzen dugunak, ekoizten dugunak, ikertzen dugunak, irakasten dugunak, eraikitzen dugunak, eraldatzen dugunak. Eta boterez egiten dugu: hitzaren boterea, batasunaren boterea, kontzientziarena, borrokarena, sindikalismo feministarena, antolakuntzarena eta negoziatio kolektiboarena.

CCOoko sindikalistok ahotsa altxatzen dugu emakumeon boterea aldarrikatzeko. Botere eraldatzailea den heinean, lan baldintzak aldatzen ditu, familia ereduak, lantokiak, gizarte harremanak eta erakunde arteko harremanak baita gizarte osoa ere.

Emakumeen botere hori da gauzak aldatzen dituen eta aurre egiten diona aurrerapen erreakzionarioari. Emakumeen boterea altxatu egiten da programa autoritarioa lotsarik gabe inposatuz atzera egin nahi dutenen botere hertsatzailearen aurrean. Feminismoa erasotzen dute eskuinekin, badakitela hor dagoela beren euste-dikea. **Euren gorrotoaren aurrean, gure poza. Euren suntsipenaren aurrean, gure eraikitze ahalmena.** Ez dugulako atzera pausurik emango. Gure gorputzen gainean erabakitzen jarraituko dugu, gure denboraren, gure enpleguen eta lanen inguruan eta azken finean, gure bizitzen inguruan.

CCOotik aldarrikatzen dugu emakumeen botere hori, bidea ireki zuten emakume helduena eta bide hori irekitzen jarraitzen duten emakume gazteena. Beldurrari kolektiboki eta ahizpata-sunez aurre egiteko eta laguntza-sareak eraikitze lehen isiltasuna zegoen tokian. **Emakume prekarioen boterea, migratzaileena, sektore guztietako langileena,** ezkutuko ekonomian irauteko borrokatzen direnena, enpleguan ez daudenena zaintzera behartuta daudelako. Amak eta amak ez direnena, amonena... Emakumeok familiak aurrera ateratzeko boterea daukagu. Lantokietan berdintasuna defendatzeko, indarkeriarik eta desberdintasunik gabeko belaunaldi berriei bidea irekitzeko.

CCOotik estilo propioarekin eta beste modu batzuetan egindako botere horren alde egiten dugu. Hori da gure gizarteak behar duen boterea erabateko demokrazia lortzeko, soldata-arrakalak, genero-indarkeria eta sexu-indarkeria, jazarpena, emakumeak zigortzen dituen eta zaintzak ikusezin bihurtzen dituen prekarietatearekin amaitzeko. Guztion bizitzarako, baina batez ere pertsona ahulenen bizitza hobetuko duten proposamenak modu eraikitzailean ehunduz.

Desberdintasun anitzen eta indarkeria matxisten aurrean CCOotik ekintza sindikala eraikiz erantzuten dugu, proposamen eta protokoloekin (horien artean sexu jazarpen eta sexu arrazoiengatik jazarpen protokoloak eta LGBTIfobiaren aurkako protokoloekin), negoziatio eta hitzarmenekin, akordioak eta berdintasun plan eta mobilizazioarekin.

Emakume sindikalistak lan munduaren funtsezko parte gara, mugimendu sindikalaren eta lan zein gizarte eskubideen defentsaren parte. Gure boterea antolakuntzatik dator, batasunetik, feminismo sindikaletik egiten dugun lanetik eta borroka kolektibotik.

Emakumeak gizarte eraldaketaren eragile gara eta emakume langile guztientzako (denak garelako langile) baldintza duinak bermatzen dituzten politika publikoak eskatzen ditugu, baita enplegu egonkorra, soldata justuak, berdintasun eraginkorreko planak, sexu-jazarpenetik eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean babesa eta zaintzen gizarte antolakuntza bat ez dadin horien pisu handiena emakumeengan erori.

Aurten, martxoaren 8an, kaleak hartuko ditugu gogorazteko emakumeen boterea martxan dagoela espazio guztietan eta geureak ere badiren espazio guztiak hartzen jarraituko dugula, nahiz eta askotan ukatu zaizkigun. Desberdintasunekin, indarkeria eta bazterketarekin bukatuko dugu, beste emakume batzuekin elkartzen hasita estatu osoan mugimendu feministak deitzen dituen manifestazio eta elkarretaratzeetan, eta gure afiliatio osoari horietan parte-hartzeko deia egiten diegu.

#8M2026

#FeminismoSindical

#PoderDeLasMujeres

#PoderQueConstruye

